



Azpeitiko Udala

ZIURTZATZEN DUT: Udalbatzak bi mila eta hogeita bateko otsailaren bian egindako bilkuran Udalaren 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren egokitzapena onartu du. Akordioaren edukia honako hau da:

Udalaren 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eguneratzeari dagokionez:

2021 urterako onartutako Aurrekontuei jarraituz diru-laguntzen plan estrategikoan 2021 urtera begira ondoren aipatzen diren egokitzapenak proposatu dira:

Musika Eskolari dagokionez; aurreko urteetan sail eta partida desberdinetatik ematen zitzaizkion laguntzak. 2021 urtera begira, dena Kultura sailan bateratu da eta laguntza bakarra emango zaio.

Kultur ekipamenduen kudeaketa dinamizatzeko laguntza; hau ere laguntza desberdinen bitartez kudeatzen zen, 2021 urtera begira Kultura sailaren barnean, laguntza bakar baten bitartez kudeatuko da.

Hezkuntza sailaren barruan, Oinberri herri hezitzaileak elkartearen aisla-eredua sustatzeko egitasmoarentzako laguntza jaso da.

Hezkuntza sailean, Arte eta diseinu eta musika eskola jasotzen zen eranskinean, musika eskola kendu da.

Kirol sailean jaso da Azpeitiko Udal Kirol Patronatuaren bazkideei eta kirol klubetako kirolariei sendagile-azterketak egiteko laguntza.

Bai sustapen ekonomikorako laguntzen zenbatekoa, Azpeitiko Udalerrian etxebizitzak alokatzeko laguntzena eta Udalaguntzei dagokion kopurua 2021eko aurrekontuetara egokitu dira.

Plan estrategikoan honako hauek txertatu dira, aurrekontuetan jasoak zeuden iada:

- Parekidetasun sailan: Basanderiek.
- Hirigintza eta Ingurumena sailan, Oinatz animalia elkartea.
- Kirol sailan; Eskola Kirola txertatu da.
- Gizarte Zerbizuetako sailan, AES -ak.

Bertan merkataria elkarteari ematen zaion laguntzaren zenbatekoa aldatu egin da eta 2021eko aurrekontuei egokitu da.

Azpeitia Berritzeni Agirre eremuko alokairuengaitik egiten zaion amortizazioa jaso egin da (aurrekontuetan aurreikusita zegoen).

Gu ere bertsotan Hezkuntza sailara aldatu da, orain arte gaizki jasota zegoen. Eta berdina eginda Erriarraitzekin Kultura sailara pasatuz.

Azkenik, Covid 19ari lotutako laguntzak kendu egin dira.



Azpeitiko Udala

Segidan Udalaren idazkariaren txostenaren berri eman da:

Ezargarri den legeria:

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8. artikulua, eta lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 10 artikulua eta hurrengoak.

Azpeitiko udalbatzak **2020ko maiatzaren 5ean** egin zuen bilkuran 2020-2022 epealdia izango duen diru-laguntzen Plan estrategikoa onartu zuen eta honen barnean udal diru-laguntzak ematea arautuko duten helburu estrategikoak, arauak eta printzipio orokorrak jaso zituen, baita ere horren justifikazioa eta kontrola ere (Udalaren web orrian eta GAO 2020/05/20an argitaratua).

Modu berean, Udalbatzak **2020ko maiatzaren 21ean** egindako bilkuran COVID-19aren eragina arintzeko neurriak jasotzen dituen sustapeneko plan integrala onartu zuen. Dokumentu honek 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa osatzen du (Udalaren web orrian eta GAO 2020/07/08an argitaratua).

Orain 2021. ekitaldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eguneraketa egin da, eta bertan ezarri dira onura publikoko edo interes sozialeko jardura edota helburu publiko bat sustatzea helburu duten diru-laguntza berriak, bai eta, lehendik daudenak eguneratu ere. Laguntza horiek koerenteak dira iadanik behin betiko izaeraz onartua dagoen 2021eko udal aurrekontuarekin.

Udal diru-laguntza **berrien** kasuan helburu estrategikoak, arauak eta printzipio orokorrak jasotzen ditu, baita ere horren justifikazioa eta kontrola ere. Zenbait kasuetan, laguntzak eraginkorrak eta efizienteak izateko beste batzuekin aldatu edota ordeztu dira. Kasu guztietan, laguntzen baliabideak eguneratu dira 2021ko aurrekontuaren arabera.

***Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren edukina eranskin bezala jaso da.**

Esandako guztiagatik, Udalaren idazkariak ontzat eman du proposatu den 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eguneratzeari. Bere onarpena Udalbatzari dagokio, eta gardentasun printzipioaren baitan argitaratu egingo da Udalaren web orrian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Diru-laguntzen Datuen Erregistroan.

-0-

Eta kontuan izanik aldekoa dela Ogasuna eta Langileria Batzordeak 2021eko urtarrilaren 27an emandako irizpena, Udalbatza Osoak aho batez Udalaren 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren eguneraketa onartu du.

Eguneratzeak diru-laguntzen lerro berrietan jartzen du arreta, eta horien alderdiak Planean bertan identifikatzen dira: eskumen-arloak, helburuak eta ondorioak, lorpen-epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, ekintza-plana, jarraipen-araubidea eta emaitzak. Planaren beraren bidez aldatu diren helburuak dituzten diru-laguntzen lerroak ordeztu edo ondorioz gabe uzten dira, eta diru-laguntzen lerro bakoitza egiteko aurreikus daitezkeen kostuak eguneratzen dira.

***2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategiko eguneratuaren edukina eranskin bezala jaso da, behar bezala diligentziatua.**



Azpeitiko Udala

Diru-laguntzen kudeaketak eskatzen duen gardentasun printzipioaren baitan 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategiko eguneratua Udalaren web orrian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Diru-laguntzen Datuen Erregistroan argitaratuko da.